



AMA BIRGIÑA
GUADALUPEKOA'REN
BEDERATZI - URRENA
TA KONDAIRA'

R. 14. 993.

AMA BIRGIÑA GUADALUPEKOA' REN

**BEDERATZI-URRENA
TA KONDAIRA**



1943
GRAFICAS FIDES — SAN SEBASTIÁN
Paseo Colón, 4, bajos

AURRE-ITZA

Gure artean ikusten dira oraindik On Alfonso Maria Zabala, apaiz agurgarri ta gizon ospetsuak, Ondarrabiko bikario beneragarri ta gure Guadalupeko Ama-Birginaren maitale sutsu ta egizko: ON JOAKIN OLLOKOA'ri donkitu zion «ONDARRABI'KO AMA GUADALUPEKOAREN ZIAZALDEA EDO KONDAIRA»'ren zenbaki batzuek.

Pitxi aberats bat bezela gordeta daukate bere jabe diranak. Eta ez da gutxiagotako, mami-mamitsua, goxo-goxoa bera. Xeetasun guztiakin argi ta garbi azaltzen digu Andra Mari Guadalupekoaren kondaira. Liburutxo onetan gertakizun aundienak bikainki ausnartzen ditu On Alfonso argiak.

Ostera egin ziran bederatzi-urrenak, jendiaren esaeran, alargun bezela gelditu ziran, kondairik gabe argitaratu zirelako. Oek ere bukatu direla ta, berriak egiteko Jaun esku zabal batzuek dirua ta papera ornitu dituzte. «Amatxok» zerutik lagunduko aal die beren biotz-onagatik.

Ilkusten dezuten bezela oraingo taldea bien artekoa da. Bederatziurrena argi ta garbi, beti bezela, gure «Salvea». ta azkenik, labur-laburki itz-bitan, gure Amaren Edezti edo Kondaira. Lan onetarako iturri ugari ta garbia izandu degu goraxeago aitatutako liburutxoa.

Guztia izan dedin Ondarrabitarrak gure arbasoak ainbeste maite zuten eraspen eder oneri jarraitzeko, ta gure onerako Jaizkibel'go mendian agertu zan Guadalupeko Ama pallakatzeko.

Ondarrabian Uztaillak 15-1943'gn.

FEDEA

(Fedea = Fernando de Arto la)

Belaunikatu zaitez Guadalupeko Ama
Birgiñaren imagiña baten aurrean eta
zure biotza Jaunagana jasorik,
asiko zera egun-oro era
onetan.

LENENGO EGUNA

Gurutze santuaren + señaleagatik, gure + etsayetatik, libra gaitzatzu + gure-Jauna eta Jaungoikoa. Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

EGUN-OROKO PRESTAERA

Jaungoiko guzialduna. Trinitade guziz Santua: zuk apaindu eta ornitu zenduan gure bitarteko dan Ama gozoa, beti Birgiña María, zeruko doai grazi eta edertasun ugarriakin; eskerrak eman nai diguzu,

bada, gure Ama Santari egin ziñio-
zun mesede paregabe oek-gatik, egi-
ñaz onen onrran eta alabantzan be-
deratziurren bat, eta bear bezela
egin dezagun, iguzu, Jauna, gure
pekatuen damutasunik aundieneta-
koa, eta esan dezagula biotz-biotze-
tik: damu degu Jesus maitea, zure
kontra pekatu egiña, eta damuta-
sun au sortzen da gure animetan,
ez zeren zerua galdu degun, ezta
ere infernuaren beldurrez, baizik
zeralako ontasuna bera ta maitaga-
rria gauza guzien gañean, ez geya-
go pekaturik, Jauna, naiago degu
galdu milla bider bizia, zu berriro
ofenditu baño. Amen.

LENENGO EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O zorioneko aur Maria Santa eta
gure Ama maitea! Egun sentiko
izarrak munduari adierazitzen dion

bezela, laster jayoko dala eguzki
pozgarria; ala zure Jayotzan izan
ziñan, zeruko eguzki, Jesus Jaun-
goikozkoaren etorrera adierazi zen-
duena. Arren, bada entzun itzatzu
gure eskaerak, eta irichi zaiguzu
zure errai garbietan aragia artu
zuan arrengandik gure petaku gu-
zien barkazioa, eta gure biotzak ez
ditezela egon itsatsirik munduko
ondasun gezurtietara :irichi zaigu-
zu ere, Guadalupeko imagiña onen
aurrean, bederatzi-urren onetan es-
katzen dizuguna, baldin beintzat
bada gure animen onerako. Amen.

*Orain konpianza aundi batekin
eskatuko dio bakoitzak, geyena zer
nai duen, Guadalupeko Ama go-
zoari.*

REGUN ORO EGIN BEAR, DAN

AZKENEKO OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

O Jesusen Ama, pekatuaren kutsurik bageko Birgiña garbia! Zu izan zīñan gizonentzat ama errukitsu bat, eta orain zeruan zera onen bitartekorik indartsuena. Guk eskerak ematen dizugu gure amodioz Jaizkibel'go mendi onetan agertu nai izan zendualako: eta sinismen osoan gaude, zure bitartez Jesusek egingo digula, grazi eta mesede asko, batez ere emango digula gure pekatu guzien konpesio on bat egiteko doaya. Argaitzatzu, Maria, zure Mantupean, zeren zure semerik leyanenak izan nai degu. Senda itzazu miñez daudenak, lagundu eyezu itxasoko бага asarratuen artean dabiltzen mariñel gasoai, ez zaitez aztu eriotzako trantze estuan daudenakin, erruki zaitea purgatorioko anima bedeinkatuakin, itzuli itzazu

zure begi errukitsuak, zure onrran
bederatzi-urren au egiten ari geran
guziotara, gure egun laburrak iga-
rotzean, zurekin bizi gaitezen beti-
kotasun guzian. Amen.

*Orain kantatzen dira, azkenean
ezarri ditugun gozoak.*

BIGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

O aur eder Maria Santa, doaka-
be guzien poŕ eta atsegiña! Zure ja-
yotza miragarriak, pozez eta atsegi-
ñez bete zituan linboko illuntasu-
nean bizi ziran anima tristeak: Igu-
zu, bada, Guadalupeko Imagiña
orretan onrratzen zaitugun guzioi,
gure animako illuntasunak dese-
gintzeko grazia, eta gure begiak
ixuri ditzatela pekatuen damutasu-
neko negar malko gozoak, eta beste

bederatzi-urren onetan eskatzen di-
zuguna, baldin gure animen onera-
ko bada.

IRUGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O aur paregabea eta gure Ama
Santa! Zu izan zinan berezia andra
guzien artean Jesusen amatzat, eta
zure jayotzan atsegiñez bete ziran
Trinidad guziz Santua eta zeruko
aingeruak. Arren piztu ezazu gure
biotzetan Jaungoikoaganako amo-
dio sutsu bat, iritxi ezazu justuen-
tzat azken-iraupena, eta pekata-
rientzat Jaungoikoarengana biur-
tzeko grazia; gorde gaitzatzu guz-
tiok, batez-ere bederatzi-urren au-
egiten ari geranak, eta iritxi zaigu-
zu guk eskatzen deguna gure ani-
men onerako bada. Amen.

LAUGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O aur maitagarria eta gure Ama Santa! Zure jayotza miragarrian eskatu zión Jaunari negar malko askorekin gizonagatik. Eskerrak ematen dizugu errukitasun baztargabe orregatik, eta iguzu, zure aurtasuneko negarrak ez ditezela izan guretzat negar alperrikakoak, bai-zik gure erremediorako ixuriak, ez zaite bada aztu pekatari gaxoakin batez-ere imagiña orren aurrean bederatzi-urten au debozioz egiten ari geranakin, eta iritxi zaiguzu zure seme Jesusengandik eskatzen dizuguna, gure animen onerako bada. Amen.

BOSTGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O aur doatsua eta gure Ama Santa! Zu jayo zían bezin laster

zeruko aingeruak ezagutu eta artu
ziñuzten Erregiñatzat, eta adierazi
zuten euren poz eta atsegiña kantu
eta soñu miragarriak joaz eta kan-
tatuaz. Poztutzen eta atsegiñez be-
tetzen gera gu ere, orrelako doaya-
kin zeruko Errege Jainkoak ornitu
ziñuelako, eta alkartu nai ditugu
gure erregu eta eskaerak aingeru
ederren kantakin batean: Arren,
iguzu, bada, Amacho maitea, izan
gaitezela zure semearen jarraitza-
lle leyalak, eta gaur arte egindako
utsegite guzien damua, eta zure on-
rran egiten ari geran bederatzi-
urren onetan eskatzen dizuguna,
baldin gure animen onerako bada.
Amen.

SEIGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O aur garbia eta gure Ama San-
ta! Zure jayotzan etorri ziñan mun-

đura grazi eta doai guziakin apain-
dua, ain garbia, nun, zure sortze
miragarrian etzan izan pekatuaren
kutsu ta ez ere itzalik, zeren zuga-
dik artu bear zuan aragia mundua-
ren Salbatzalleak: Jaungoikoak
egin zizun mesede oek guziagatik
erregutzen dizugu, garbitu itzatzu-
la gure animetan, pekatuak utzi di-
guten arrastoak, ar dezagun komu-
nio santuan, errespeto eta animako
garbitasunarekin, zure sabeleko
pruitu bedeinkatu Jesus-aundia; eta
iguzu grazi au Guadalupeko imagi-
ña orren aufrean bederatzi-urren
au egiten ari geran guzioi, eta beste
eskatzen dizugun mesedeak, gure
animen onerako badira. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

O aur miragarria eta gure Ama
Zu jayo ziñan egunean eraman edo

jaso ziñuzten zeruko aingeruak
Jaungoikoaren exerleku edo tronu-
raño; eta eman zizun eskubide aundi-
ak zeruan eta lurrian zure Seme
izan bear zuan Trinidade guziz
Santuko bigarren Personak: ordu-
tikan dezun alizan edo poderio
aundiagatik, iguzu, imagiña orren
aurrian bederatzi-urren au egiten
ari geran guziori, gure estadu edo
bizimoduko eginbideai zuzen eran-
tzuteko grazia eta eskatzen dizugun
beste mesedeak gure animen one-
rako badira. Amen.

ZORTZIGARREN EGUNERAKO

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O aur errukitsu eta gure Ama
maitea! Zure jayotzan aingeruak
zerura eramán ziñuzten bezin las-
ter, así ziñan Jaunari gizonen alde
erregu egiten: esanaz, «biraldu de-
zala len bait len Profeteen aotik es-

keña zeukan „Salbatzallea»: Zure
biotzak guretzat zeukan amodio pa-
regabe onegatik, erregutzen dizu-
gu, eskatu zayozula zure errayeta-
ko Seme Jesusi, arren, erremediatu
ditzala gure anima eta gorputzeko
gaitz guziak, batezere Guadalupeko
imagiña orren aurrean bederatzi-
urren au egiten gaudenak, eta baita
ere iritxi zaiguzu eskatzen dizugu-
na, gure animen onerako bada.
Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNE- RAKO*

OTOITZ-ALDI EDO ORAZIOA

¡O Ama Birgiña Guadalupekoa!
Pekatari gaxoen Ama errukitsua,
itxasoko perillen artean dabilta-
nen izar ederra eta gordetzallea eta
gure bear guzi-guzietan, batez ere
gure animak zeruratzeko laguntza-

ASIERA EDO KANTACHOA

Aingeruen Erregiña

Zeruko izar argia

Kristauen Ama gozoa

Guzaz erruki zaitia.

I

Olearsoko mendian

Agertze miragarria

Kristauen probechurako

Egin zenduen, Maria ;

Mesede aundi onegatik

Pozez dago erri guztia

Kristauen Ama gozoa

Guzaz erruki zaitia. Agur Maria.

2

Maitatutzen dezulako

Animen inozentia

Bi gazteri egin ziniñon

Zu agertzeko grazia,

Ordutikan zera bada,

Gure esperantza andia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

3
Esitua izandu zan
Bein batez Ondarrabia
Zugan zeukan konpianza
Guadalupeko Maria ;
Garaiturikan etsayak
Libratu zan gure erria,
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

4
Etorri zan zure echera
Errege fede gabia
Emen erakutsi zuben
Berak zeukan arrabia,
Zuri egindako burlak
Eman zigun pena aundia,
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

5

Zeruko aingeruak eskuz
 Utzirikan Parrokia
 Guadalupera ekar zuten
 Zure imagiña garbia,
 Aditutezera emanaz
 Au zala zure tokia,
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

6

Kaptiboak jaritzen badu
 Zugana fede guztia
 Bereala puskatzen da
 Esku-oñetako burnia
 Aitortuaz, zu zerala
 Beraren libratzallia,
 Kristauen Ama gozoa
 Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

7

Itsasoko perilletan
 Dabiltzanen errukia

Zuk dezu dudarik gabe
Ama Birgiña Maria
Izan zaitetz bada, beti;
Oyentzat izar argia,
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

8. SINTA MARIA

Kristau guzientzat zera
Ama errukigarria
Zuk sendatzen dezu miña
Baita poztutzen tristia;
Orregatikan diguzu
Jayera guztiz aundia,
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

9

Belaunikatutzen gera
Ama benegarria
Eta zugan jartzen degu
Esperantza chit aundia;
Eskeñirik gure anima

Ta gure biotz guztia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia. *Agur Maria.*

Aingeruen Erregiña
Zeruko izar argia
Kristauen Ama gozoa
Guzaz erruki zaitia.

ANTIPHONA

Nativitas tua, Dei genitrix virgo, gaudium anuntiavit universo mundo: ex te enim ortus est sol justiae, Christus Deus noster, qui solvens maledictionem, dedit benedictionem et confundens mortem donavit nobis vitam sempiternam.

Nativitas est hodie sanctae Mariae virginis.

Cujus vita inclita cunctas illustrat Ecclesias.

OREMUS

Famulis tuis quæsumus Domine, coelestis gratiae munus impertire: ut quibus beatæ Virginis partus extitit salutis exor-

dium, nativitas ejus votiva solemnitas pa-
cis tribuat incrementum. Per Dominum
nostrum... etc.

NOTULA

"Extra octavam predictis versu et oratione
illa verba: est hodie: solemnitas mutantur in
"hæc: *recolitur commemoratio*. Hoc multorum
"quos consului. Perit. Rubric, sententia docet.

Ondarrabiarak Guadalupeko Ama'ri

kanta oi dioten

SALBEA

1

Jaungoikoak salba zaitzala
Ama Erregiña Maria
Miserikordiasko Ama
Gutziz da miragarria
Konfiantza osoarekin
Zugana nator jarria.

2

Jaungoikoak salba zaitzala
 Berriz ere dizut esaten.
 Zure graziaren premian
 Gu beti gera gertatzen
 Zu bezelako beste Amarik
 Munduan ez det arkitzen

3

Suspirioz eta sentimentuz
 Beti negarrez gaude gu
 Negarrezko balle triste onek
 Zembat dolore bizidu
 Zure begi piadoso oyek
 Gugana itzulitzatzu.

4

Balle triste onetatik
 Irtetzen geradenean
 Erakutsi egiguzu Jesus
 Gure begien aurrean
 Zure zabeleko frutu
 Guztien zorionean.

5

O klementisima deitzen dizugu
 Ama guztizko garbia
 O piadosa zeñ aundia dan
 Zure miserikordia
 Denen artetik zugana nator
 Dultze Birgiña Maria.

6

Anima galdu ez dezagun
 Eskatzen dizugu gogotik
 Apartatutzen lagundutzeko
 Pekatuaren bidetik
 Jaungoikoaren Ama Santa
 Erregu zazu gugatik.

7

Begira zazu Ama maitea
 Gu nola bizi geraden
 Peligro eta tentazioa
 Besterik ez degu emen
 Zure amparuan artu gaitzatzu
 Betiko glorian, Amen.

ONDARRABIKO AMA BIRGINA GUADALUPEKOA' REN EDEZTI-LABURRA

Igerko munduan azi ta Pasaiko Aran-
doko aldian du amaia antziñako Olear-
so oraingo Jaizkibel lerdanak.

Benetan mendi atsegingarria, mendi
auxe.

Bere magalian baserri ugari badira,
zelai, baso ta ibarrak ere ugari.

Iturri ametsgarriak or ta emen; zuaitz
itzalkorak ur-iturri ondoan.

Saietsetan, ipar aldetik, Kantaurri biz-
korra. Eguzki egunean milikari; ekaitza
nagusitzean aserre, astinlari.

Mendi onen biotz-biotzean, mendi-
mendiyan :

A M A BIRGINA GUADALUPE-
KOA AGERTU ZAN LEKUA.

★ ★ ★

Ikusgarria emendik dagon ikusmira.

Aurrez-aurre Hendaya, begiz ikusten
dana.

Ia-ia begiz, baña biotz begiakin ondo
agiri diranak, Bayona, gure antziñako
Eliz-barrutia, Biarritz, Bidart, Getari, Do-
nibane Loitzun, Urruña, bere inguru zo-
ragarriakin. Belok eta Sokorri'ko Ama
Maitea-ken basterrak...

Mugerreko kaskua, Urtsuya, Larrun,
Ayako Arri, Urdaburu, Aiztgorri, Ernio
ta Aralar mendiak.

Babes-babesean ONDARRABIA ta Bi-
dasoa ibaien itxas-sartzea. Irun uri leyal
ta anaikorra. Uranzu zaarra.

Urbil, Ondarrabiakin muga: Oyar-
tzun, Errenderi, Lezo ta Pasaiak.

Gauz ederragorik!

NOIZ ETA NORI AGERTU ZAN BIRGINA GUADALUPEKOA

Gure Ama Guadalupekoa noiz, nori
ta nola agertu zan ziertoro esatea ezin li-
teken gauza da.

Oraindik ez da bear bezela argitua, eta ez da errexia izaten. Gure errian izan diren guda aunditan ziur aski erre edo galdu ziran asiera-asierako as'arrenak. Bear bada Bayonako «archiboan» argitasuna atzamango litzake, onetarako lana egin bear, ta gaur ez da erraxtasun aundirik ortarako.

Dana dala, aoz-ao e'orritako kondairak dio; Bi artzai gazteri agertu zitzaiera, Olearsoko mendian, ardiak zaintzen zuela. Argi aundi ta eder bat ikusi omen zu'en. Argi au zertzan ikasi naian bertara urbildu ta, Ama Birgiña'ren imagiña arkitu zutela dio kondairak. Arrezkero Ondarrabian eta inguruko erritan zabaldu zan agerpen miragarria ta bertatik laister jaso zuten Elizatxo bat Imagiña beneragarri arentzat.

Dakiguna da Elkano mariñel argiak, Bitoria zeritzan ontzian egin zuan atzenayan utzi zizkiola Ama Birgiña Guadalupekoari, Urrezko sei dukat. Beraz or-

durako oso zabaldua zan Ama Birgiña
Guadalupekoaren eraspina.

Guadalupekoa'ren izena nundik dato-
rren ere inork ez daki. Au edo ori esatea
beraz, alperrikakoa dala derizkiogu.

ELIZATXOA ZENBAT ALDIZ ERREBERRITUA IZAN DAN

1570'garren urtean orain ikusten dan
bezela gutxi gora bera, egiña izan zan.
1638'garrenean guerra izugarri baten on-
doren desegina gelditu zan. la berrogei-
tamar urte bear izan zuten orduko Onda-
rrabitarrak, berriz itxuran jartzeko.

1772'garrenean nolatan jakin gabe,
suak artu ta ondatu zan berriz guztia.

1874'garrenean guda zibillan berriz
seroran etxia erre egin zan. On Joa-
quin Ollo-koak azkenik egin zuan obra
aundia.

EGINKIZUN MIRAGARRIAK

Andra Mari Guadalupekoaren bitartez gertatu izan oi dira eginkizun miragarri aundiak.

Guztiok pozik jarraitzen diogu 1638-garrenean ondarrabiarrek egin zuten bo-toari. Danak dakigu gure Guadalupeko amari zor ziotela garaipen miragarri ura.

Zeruko aingeruak eskuz utzirikan Pa-rroquia Guadalupea ekar zuten zure imagiña garbia, dio gozoko kantuak. Gauza miragarria.

Baster guziak legortuta nekazariak la-rriz ziran aldi baten. Guadalupeko Ama-rena urbildu zan erri guztia. Baita ere eudi jasa ederra egun artan bost-sei or-duan, egin ere.

Fedea agertu zitzaion Guadalupeko Ama Birgiñari 1855 garren urtean izurri edo kolera zala ta. Gure Ama Santak Ondarrabitarrak lagundu zien orduan ere.

Gauden ixillik, gu bakoitzak, zembait zor diogu Ama Guadalupekoari. Galde-

tu mariñelai. gerran ibilli diran gazte-
ai., atzerrian, preso ta erbestean egon-
du diran ondarrabitarrai.

Fede aundiak ez du mirari aundirik
bear. Egizko konpianza zayogun ordea
gure bearkizunetan.

ZENBAT ALDIZ IZAN DAN AMA BIRGINAREN IMAGIÑA ONDA- RRABIKO ELIZ NAGUSIAN

Lenengo, Francelalde aundiak 1638-
garrenean guerra zalata, zetozen Onda-
rrabia zitiatzera.

Mandire baten bilduta ondarrabitar
zintzo batek Bikario Jaunari ekarri zion
imagiña.

Bigarren aldian jetxi zan 1719' garren
urtean, Franziaiko martizti batek eraso
zionean.

Irugarren 1774' garren urtan Elizatxoa
erre zalako.

Laugarren aldiz 1855' garren urtean
kolera edo izurria aldendu arren.

Bostgarren aldiz 1868'garren urtean orain daukan torrea egiteko.

Seigarren aldian, guda galgarria zan Euskal-Errian, badaezpada ere Eliz Nagusian egondu zan iru urtean.

Zazpigarren aldiz, Abenduak 8 ta 1929'gn. Ama Sortzez garbiaren izendatzea, irurogei ta amabost urte aurretik Batzarrak, Ondarrabian egin bai zuten.

Ta zortzigarren aldian, 1936'garrenean, gure egunetan oraindik, guda zibilla zelata norbaitzuek, gurutze Santuari bezela bidegabekerik egin baño lenago.

1937, Agorraren zortzian igo zuten otsandiro oi ez bezelako pestak egiñaz.